

1. Balio-proposamena

INKLUNET sare sozial inklusibo eta irisgarriak espazio digital segurua, irisgarria eta enpatikoa eskaintzen du, non pertsona guztiak beren gaitasun fisiko, sentensorial edo kognitiboak edozein direla ere, berdintasunean parte hartu ahal izango duten.

Helburua da oztoporik gabeko komunikazio eta adierazpen espazioa sortzea, non guztiek euren ahotsa eta presentzia digitala izan dezaketen, diskriminaziorik gabe.

Beste sare sozial askok eduki biralak, irabazi ekonomikoak edo erabiltzaileen arreta maximizatzea lehenesten duten bitartean, INKLUNETek irisgarritasuna, enpatia eta parte-hartze erreala sustatzen du. Gure helburua ez da eduki gehiago sortzea, baizik eta esperientzia hobea eta inklusiboagoa eskaintzea.

Gure proiektuak bi balore mota eskaintzen ditu::

- **balore kuantitatiboa:** INKLUNET doako sarbidea duen plataforma da, baina baita erakunde eta elkarteentzat bertsio profesional bat ere eskaintzen duena. Teknologikoki eraginkorra da, azpigitulu automatikoekin, ahots bidezko nabigazioarekin eta irisgarritasun tresna aurreratuekin.
- **Balore kualitatiboa:** Esperientzia emozional eta sozial aberatsa eskaintzen du; erabiltzaileak errespetuan, konfiantzan eta elkarlan inklusiboan oinarritutako komunitate batean murgiltzen dira.

Balio-proposamen honen ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- **Berritasuna:** Sare sozial tradizioaletatik bereizten da irisgarritasuna eta inklusioa ardatz nagusi bihurtuz.
- **Irisgarritasuna:** Testu, ahots, Zeinu Hizkuntza eta azpigitulu bidezko komunikazioa.
- **Pertsonalizazioa:** Kolore kontrastea eta letra-tamaina egokitzeko aukerak ikusmen zailtasunak dituztenentzat.
- **Erosotasuna eta erabilgarritasuna:** Nabigazio intuitiboa, irakurketa erraza eta hizkera argia.

- **Diseinua eta marka:** Diseinu garbia, goxoa eta irisgarria, enpatia eta elkartasuna transmititzen dituen.
- **Bezeroarentzako arreta:** Laguntza-zerbitzu irisgarria, txat bidez eta Zeinu Hizkuntzan ere eskuragarri.
- **Kostu-eraginkortasuna:** Garapen digital jasagarria eta baliabideen erabilera arduratsua.

Gainera, INKLUNET-ek aniztasun funtzionalean oinarritutako komunitate bat sortzen du, non pertsona guztiak euren esperientziak, zalantzak eta ideiak parteka ditzaketen.

Plataformak foro eta informazio-gune seguruak ditu, ikaskuntza eta gizarte-sentsibilizazioa sustatzeko.

Laburbilduz, INKLUNET-en balio-proposamena da:

“Pertsona orori aukera berdinak eskaintzea sare sozialean, irisgarritasun digital unibertsala eta inklusio soziala ardatz hartuta. Gure indarra ez dago edukietan, baizik eta gizakien arteko harremanetan.”





BIBLIOGRAFIA:

- García,B.-Tena, D.-Bernabeu, M^a E.- López, C. (2025). Itinerario personal para la empleabilidad. TULIBRODEFP.
- STARTINNOVA plataformako material.
- <http://blog.hubspot.es/sales/modelo-canvas>
- Logoa: Lucia ia